

ZERTAN GARA, BA?

Zertarako galdu zuten gerra gure aiton-amonek? Zertarako sortu zituzten ikastolak gure gurasoak? Zertarako irakatsi digute nazio bat garela? Alderdi nazionalista nagusiaren buruzagiaren ahotik autodeterminazioa praktikara eramanez herri kontsulta demokratikoa egitea gaur esperpentoa dela entzun behar izateko? Inork uste al du praktikarik gabeko teoriak inoiz ezertarako balio izan duenik, espekulazioen bidez iruzur egiteko ez bada?

Zertarako hogeitaz hamar urte luzeko gartzeladi eta ihesaldiak? Zertarako ezustean bonbak txiki-txiki egindako gorputz gazteak? Zertarako Euskal Herriarekin zeharkako lotura baino ez duenaren hilketa periodikoa? Herri bezala dugun agonia ahalik eta gehien luzatzeko? Erabateko galbidearen unean ere «irabaziko dugu» oihu egin ahal izateko?

Ordezkatu beharko gintuzketen politikari profesionalei ultimatumak eman beharko genieke herri honetako abertzaleok. Argitu dezatela behingoz zein den euren proiektua: Europan euskal estatua eratu nahi duten ala ez, eta baiezkotan, zein bide, zein estrategia eta zein taktika proposatzen dituzten horretarako. Eta, inportanteena, has daitezela behingoz pausoak ematen. Ixilik gera daitezela nahi badute, baina urrats sendoak ematen has daitezela. Urrats sendoak. Ez diezagutela esan polizia(k), ogasuna(k), erakunde nazional bakarra(k) -hots, udalbiltza(k)- eta nortasun agiria(k) direnik urrats horiek, ez baikara idealista inozoak edukirik gabeko sinboloetan murgilduta bizitzeko. Ez diezagutela esan emandako edo kendutako bizitza bakoitzak independentziaz gertuago jartzen gaituela, ez baikara fededunak martirioraren odolaren bidez paradisua lortuko dugula sinesteko. Abertzaleak gara eta etorkizuneko euskal estatuaren prefigurazioaz ari gara. Bide horretan hasten direla erakusten digute edo bestela jai dute. Ez gara edozerekin konformatuko. Nazka-nazka eginda gaude teoriarik gauza bat esan eta praktikan beste bat egiten duen euskal nazionalismoarekin. Nazka-nazka eginda moral bikoitzarekin.